



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2015eko IRAILAREN 15ean EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2015eko irailaren 15ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^o Aranzabe Urruzola
Onintza Gorostidi Murua
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Xabier Mugika Letamendia
Koldobika Jauregi Zinkunegi
Uxue Etxebeste Eizagirre

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
-2015eko uztailaren 28an egindako ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. 2014ko kontu orokorraren behin betiko onespena, hala bada.**
- 5. Alkizako Saletxe Baserriko bi etxebizitzaren lehen erabilera baimena eskaera, A.G. eta M.D.A.**
- 6. Alkizako Azaldegi Etxeberri baserriko fatxadan eta etxe ordeko teilatuan konpontze lanak egiteko obra baimena eskaera, M.R.**
- 7. Alkizako Aranguren baserriko bi fatxaden pintaketa eta teilatua konpontzeko obra baimena eskaera, A.M.**
- 8. Beste batzuk.**
- 9. Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA

AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA

- 2015eko uztailaren 28ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

35/2015 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 29koa, 2015eko abuztuaren 4tik 27a arte Alkizako udaleko bigarren Alkateordea den Jose Maria Aranzabe Urruzola zinegotziari Alkate moduan ditudan funtzio eta atribuzio guztiak eskuordetzekoa, ebazten duena.

36/2015 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 21ekoa, 2015eko abuztuaren 24tik irailaren 23a arte J.I.G. jaunari lanaldi osoko lan kontratua egitea, ebazten duena.

37/2015 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 25ekoa, Alkizako udaleko 2015 urteko lehenengo seihilabeteko uraren tasaren udal errolda onartzea, ebazten duena.

38/2015 Alkatetza Ebazpena, irailaren 3koa, 2015eko irailaren 5etik 13ra arte Alkizako udaleko lehen Alkateordea den Koldobika Jauregi Zinkunegi zinegotziari Alkate moduan ditudan funtzio eta atribuzio guztiak eskuordetzekoa, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

| | |
|--------------------|----------|
| BIDATEK | 3.395,26 |
| ITTEN | 1.076,34 |
| AUDAX | 39,48 |
| AUDAX | 63,18 |
| AUDAX | 14,60 |
| MOVISTAR FIJO | 74,40 |
| MOVISTAR FIJO | 80,83 |
| AUDAX | 64,40 |
| AUDAX | 70,96 |
| AUDAX | 115,58 |
| HONTZA LIBURUTEGIA | 31,50 |



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

| | |
|-----------------------|----------|
| BERRI LANTEGIA | 14,46 |
| VALENTINA MONTERO | 403,71 |
| RECAMBIOS IBARRA | 5,34 |
| IBERDROLA | 35,27 |
| ARGITU | 156,50 |
| ABM-REXEL | 587,30 |
| AUDAX | 171,14 |
| AUDAX | 647,58 |
| ELECTRICIDAD ZIZURKIL | 621,70 |
| TOLOMENDI | 150,00 |
| EUSKALTEL | 80,68 |
| SOLRED | 59,32 |
| BIDATEK | 471,90 |
| CORREOS | 15,97 |
| AUDAX | 68,36 |
| AUDAX | 51,60 |
| AUDAX | 15,63 |
| AUDAX | 40,41 |
| AUDAX | 70,51 |
| AUDAX | 89,08 |
| GASOLEOS ALKORTA | 74,11 |
| GURDI KOOPERATIBA | 18,21 |
| CALCOSA | 96,80 |
| IZADI | 3.008,54 |
| BERRI LANTEGIA | 96,51 |
| CARPINTERIA KIMU | 280,50 |
| BGP COORDINADORES | 605,00 |
| TOLOMENDI | 150,00 |
| ECOLOGIA PER FESTES | 410,40 |
| GAUZONAK | 116,34 |
| CALPARSORO INDUSTRIAL | 155,42 |
| BERRI LANTEGIA | 28,10 |
| URAK | 53,24 |
| IZFE | 1.812,69 |
| IBERDROLA | 24,85 |
| MOVISTAR FIJO | 86,44 |
| MOVISTAR FIJO | 66,68 |

ERABAKITZEN DUTE



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENA.- Guztira **15.866,82** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

2014KO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 21/2003 Foru Arauak, Toki Erakundeen Aurrekontuari buruzkoak, 62 eta hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraituz, Kontu Orokorra egin dela, ekitaldiko aurrekontuari buruzkoa, aparteko aurrekontuari nahiz ondasunei eta diruzaintzari buruzko operazio guztien adierazgarri dena. Kontuetako Batzorde Bereziaren txostena lortu ondoren, jendaurrean egoteko tramitean jarri dela, 2015 urteko abuztuaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratuz erreklamaziorik, konponbiderik edo oharpenik aurkeztu ez delarik.

Ikusirik espediente osoa Udalbatzarraren ezagupenean jarri dela.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Udalbatzarreko Lehendakariak emandako 2014 ekitaldiko Kontu Orokorra onestea.

BIGARRENA.- 2014ko ekitaldiko Kontu Orokorraren espedientearen berri Kontuetako Hauzitegiari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

ALKIZAKO SALETXE BASERRIKO BI ETXEBIZITZEN LEHEN ERABILERA BAIMENA ESKERA, A.G. eta M.D.A.

Ikusirik A.G.A. eta M.D.A. jaun/andreak Alkizako Saletxe baserriko bi etxebizitzan lehen erabilera baimena emateko eskaera aurkeztu dutela.

Ikusirik eskaerarekin batera obraren behin-betiko planoak, obra amaiera ziurtagiria, elektrizitate eta gas ziurtagiriak aurkeztu dituztela.

Ikusirik 2015eko irailaren 10ean Udal aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

“ALKIZAKO SALETXE BASERRIKO BI ETXEBIZITZEN LEHEN



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ERABILERAKO BAIMEN ESKAERARI TXOSTEN TEKNIKOA

Arkaitz Garaiburu Arsuaga eta M^a Dolores Arsuaga jaun-andereen bere etxebizitzan lehen erabilerako baimena eskaera ikusirik, eta 2015-ko abuztuaren 25-ean ikuskaritza bisita teknikoa egin ondoren, egindako obra, lizentzia eskatzerakoan aurkeztu zen "oinarrizko eta eraikitze proiektuari" egokitzen zaiola adierazten dut, eta baimena lortzeko beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztu direnez, egokia izango da aipatutako baimena ematea."

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Alkizako Saletxe baserriko bi etxebizitzan lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENGOA.- A.G.A. eta M.D.A. jaun/andreari jakitera ematea, eraikina **zatiezina izango den 20.000m²ko lursail bati erantsia egon beharko dela**. Lursail honen kategoria "*sin vocación de uso definido*" izango da gainera. Eraikinaren inguruan egon behar den partzela 5.000m² koa izan beharko du.

HIRUGARRENGOA.-Erabaki honen berri A.G.A. eta M.D.A. jaun/andreari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO AZALDEGI ETXEBERRI BASERRIKO FATXADAN ETA ETXE ORDEKO TEILATUAN KONPONTZE LANAK EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, M.R.

Ikusirik M.R. jaunak eginiko eskaera, non Alkizako Azaldegi Etxeberri baserriko fatxadan eta etxe ordeko teilatuan konpontze lanak egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektuak, 2015eko abuztuaren 18an eginiko txostenean dioena:

"ALKIZAKO "AZALDEGI ETXEBERRI" BASERRIKO FATXADAN ETA ETXE ORDEKO TEILATUAN KONPONTZE LANAK EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

*MILLAN ROTETA IRAZUSTA jaunak, "Azaldegi Etxeberri" baserriko fatxadan eta ondoko etxe ordeko teilatuan konpontze lanak egiteko baimena eskatzen du, lan hauen aurrekontua aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

Aurkeztutako idatziaren arabera, Azaldegi Etxeberri baserriko fatxada txukundu eta pintatu eta ondoan dagoen etxe ordeko teilatua erreteilatu nahi da. Lan hauen aurrekontua, dagokion segurtasuna barne, 7.710 €-koa da (BEZ-a gabe).

2/2006 Lurzoru legearen 199 artikuluaen arabera," Lursail, etxe, eraikin eta instalazioen jabeek nahitaez dute ondasun horiek segurtasun, osasun, begirune eta apaintasun publikoko egoera onean mantentzeko eginbeharra. Horretarako, behar diren kontserbatze- eta birgaitze-lanak egingo dituzte, bertako bizigaitasuna eta benetako erabilera bermatzeko."

Alkizako Hiri antolaketako 6º artikulua, egun dauden mota guztietako eraikinen kanpoaldeko itxuraren aldaketek hirigintza lizentzia behar dutela esaten du.

*"Azaldegi etxeberrri" baserria Alkizako lur ez hiritargarrian kokaturik dago, bereziki Erabilerarik Esleitu Gabeko lurrean. Arau subsidiarioen arabera eraikina katalogatua dago eta 1997ko urriaren 22 ko 5781 Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen erabakiaren arabera, **A motako Balizko Arkeologia** guneen zerrendan sartua dago (eraikinaren hormez barruko esparrua hartzen duena, alegia).*

*Alkizako lur ez hiritargarriko aldatutako araudiaren arabera, aurretik hor dauden baserriak kontsolidatuak gelditzen dira, barne eta kanpo moldaketak onartzen direlarik. Teilatuaren akabera, **zeramikazko teilazkoa izango da eta fatxadak argiak, zarpiatuak, pintatuak edo harrizkoak.***

Aurkeztutako lanak, aurreko baldintzak betetzen badituzte, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait.

**Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.*

**Obra hondakinak, baimendutako zabortegei batera eraman beharko dira eta lanak amaitzean, eraipen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean."*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA.- M.R.I. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako Azaldegi Etxeberri baserriko fatxadan eta etxe ordeko teilatuan konpontze lanak egiteko obra baimena ematea, betiere Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotako baldintzak betetzen badira.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO ARANGUREN BASERRIKO BI FATXADEN PINTAKETA ETA TEILATUA KONPONTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, A.M.

Ikusirik A.M.B. jaunak eginiko eskaera, non Alkizako Aranguren baserriko fatxadan eta teilatuan konpontze lanak egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektuak, 2015eko irailaren 11an eginiko txostenean dioena:

“ALKIZAKO ARANGUREN BASERRIKO FATXADAN ETA TEILATUAN KONPONTZE LANAK EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

*A.M.B. jaunak, Aranguren baserriko fatxadan eta teilatuan konpontze lanak egiteko baimena eskatzen du, lan hauen batzbesteko aurrekontua aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

Aurkeztutako idatziaren arabera, Aranguren baserriko bi fatxada pintatu eta teilatua erreteilatu nahi da. Lan hauen materialen aurrekontua, 3.000€-koa da (BEZ-a gabe).

2/2006 Lurzoru legearen 199 artikularen arabera,” Lursail, etxe, eraikin eta instalazioen jabeek nahitaez dute ondasun horiek segurtasun, osasun, begirune eta apaintasun publikoko egoera onean mantentzeko egin beharra. Horretarako, behar diren kontserbatze- eta birgaitze-lanak egingo dituzte, bertako bizigaitasuna eta benetako erabilera bermatzeko.”



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Alkizako Hiri antolaketako 6º artikulua, egun dauden mota guztietako eraikinen kanpoaldeko itxuraren aldaketek hirigintza lizentzia behar dutela esaten du.

Aranguren baserria Alkizako lur ez hiritargarrin kokaturik dago, bereziki Erabilerarik Esleitu Gabeko lurrian. Arau subsidiarioen arabera eraikinak ez du katalogazio berezirik.

*Alkizako lur ez hiritargarriko aldatutako araudiaren arabera, aurretik hor dauden baserriak kontsolidatuak gelditzen dira, barne eta kanpo moldaketak onartzen direlarik. Teilatuaren akabera, **zeramikazko teilazkoa izango da eta fatxadak argiak, zarpiatuak, pintatuak edo harrizkoak.***

Aurkeztutako lanak, aurreko baldintzak betetzen badituzte, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait.

**Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauko segurtasun neurriak gorde beharko dira.*

**Obra hondakinak, baimendutako zabortegei batera eraman beharko dira eta lanak amaitzean, erainspen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean .”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Jose Mari Aranzabe zinegotziaren abstentzioarekin, gehingoz, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA.- A.M.B. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako Aranguren baserriko fatxadan eta teilatuan konpontze lanak egiteko obra baimena ematea, betiere Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotako baldintzak betetzen badira.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

8.1. TOLOSAKO ATARIARI 2015 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA ONESTEA, HALA BADA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik 2015eko urtarrilaren 27an egindako Udalbatzan, Tolosaldeko Atariak eginiko 2015 urterako diru-laguntza eskaera onestu zela, hau da, 1.095,00euro.

Ikusirik, 2015 eko urtarrilaren 30ean Alkizako Udalaren eta Tolosaldeko Komunikazio taldearen artean lankidetzat hitzarmena sinatu zela.

Ikusirik aipaturiko diru-laguntza burutzeko, sinaturiko hitzarmenaren arabera, Tolosaldeko Atariak 2015 eko ekitaldiko egitasmoa eta aurrekontua aurkeztu behar zuela.

Ikusirik, 2015eko ekainaren 3an Tolosaldeko Atariak 2015eko ekitaldiko egitasmoa eta aurrekontua aurkeztu zituela.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA: Tolosaldeko Atariari 1.095,00 eurotako diru ekarpena burutzea, 2015eko urtarrilaren 30ean Alkizako Udalaren eta Tolosaldeko Komunikazio Taldearen artean sinatutako hitzarmenaren babesean.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

8.2. OILATEGITIK KULTUR ELKARTEAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Oilategitik Kultur Elkarteak eginiko eskaeran dioena, hau da, Oilategitik 15. Alea ordaintzeko, Alkizako Udalari 2.000 eurotako diru-laguntza eskatzen die, euren jarduerarekin jarraitu ahal izateko.

Gaia azterturik, Jose M^a Aranzabe zinegotziaren abstentzioarekin, Udalbatzak gehiengoaz, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Oilategitik Kultur Elkarteak eginiko eskaera onestu, hau da, Alkizako Udalak 2.000 eurotako diru-laguntza ematea onesten du.

BIGARRENA: 2.000 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA: Oilategitik Kultur Elkarteari jakitera ematea, Udalak emandako diru-laguntza zuritu egin beharko duela, dagozkion gastuen berri Udal honi emanaz.

LAUGARRENA: Erabaki hauen berri Oilategitik Kultur Elkarteari ematea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

8.3.N.A. EGINIKO ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik N.A. andreak eginiko eskaera, non dioen Perualdea gunean, Konposta egiten den tokian, bi banku daudela, eta eskatzen du bertatik bat kentzea eta Perualdean kotxerentzako aparkatzeko tokia dagoen lekuan jartzea. Horretarako krokis bat aurkezten duelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: N.A. andreak eginiko eskaera onestea, baina bakuaren kokapenaren orientazioa aldatuz, Udalak egokiagoa dela uste baidu.

8.4.ITTEN HERRIEKIN LAN EGITEN S.A. -RI ALKIZAKO UDALETXEAREN ESTALKIAREN BERRIZTAPENA-REN LANAK SUPOSATZEN DUEN DIRU ORDAINKETA GAUZATZEA

Ikusirik 2015eko martxoaren 23an Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Alkizako udalaren arteko lankidetzaren hitzarena sinatu zela udaletxearen estalkia berritzeko.

Ikusirik 2015eko martxoaren 23an Gipuzkoako Foru Aldundiak Itten Herriekin lan egiten S.A.-rekin Sozietateari kudeaketa agintzeko hitzarmena sinatu zela. Bertan Gipuzkoako Foru Aldundiak Itten, herriekin lan egiten S.A. sozietateari eginiko kudeaketa agindua edo mandatua arautuko dituen baldintzak ezarri ziren Alkizako Udaletxearen estalkiaren berriztapena egiteko Alkizako Udalarekin eginiko lankidetzaren hitzarmenean aurreikusitako inbertsioak gauza ditzan.

Ikusirik, Alkizako Udaletxearen estalkiaren berriztapen obra Itten Herriekin lan egiten S.A.-ak gauzatu eta ordaindu duela.

Ikusirik, aipaturiko hitzarmenaren hirugarrenengo klausulen arabera, Itten Herriekin lan egiten S.A.-ak exekutaturako obrak amaitu direla eta honek aurreratutako obren kostua Alkizako Udalak bueltatu beharra duela. Guztira, 156.846,04 euro izanik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENA: Itten Herriekin lan egiten S.A.-ri 156.846,04 eurotako ordainketa egitea. Alkizako Udaletxeko estalkiaren berriztapen obra amaitu eta bere ordainketa egin duelako.

BIGARRENA: 156.846,04 eurotako gastua onartzea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 21.15 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.